



# IRATI ANDA

## Bizitza harkaitz artean



**11.** EUROPA  
MAILAKO  
KANPAINA  
ENTZUMEN ARAZOEN  
AURRE HARTZERO

artemilaren 7tik martxoaren 16ra arte

**ZURE ENTZUMENA  
ZAINTZEN LAGINDU  
HARI DIZUGU**

Aprobetxa itzazu ordaintzeko erraztasunak eta eraman ezazu zure audifonoa.

**GAES**  
Entzumen Zentroak

590€

\* Kanpaina erabiltzeko zure GAEZentzuan. Erango dira plaza bete ondoren eta prezio eraberrituak.


- Antonio Murillo doktorea  
PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA
- Ainhoa Zulueta doktorea  
ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA
- Susana Sierra doktorea  
ORTODONTZIA, OKLUSIOA



**Edozein tratamendu  
dela ere, eskaintzen  
dizkizugun abantailekin**

**BELDURRA  
DENTISTARI?**

**ZER DA HORI?**



*Sedaziorarekin*

*gustoa*

*ematen du!*

ORDUTEGIA:  
Astelehenetik  
ostegunera:  
10-14 / 16-20h / Os-  
tiraletan:  
10-14 / 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



**IRAZABAL**  
clínica dental

[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)

RPS 04/02

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maidera Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidera Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Irati Anda

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGLIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-  
dizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**INTXAUR.-** Txapliuaren detonadorea. "Txapliuaren intxaurrak eskuetan errementau zetsan".**INTXAUR MOSKARAN/MOSKORON.-** Intxaurraren azalak isurtzen duen likidoak lagatako mantxa. "Intxaur moskoronak esaten eben intxaur lapurretan ibiltzen giñana".**INTXAUR MOTXAILLA KASTIA.-** Oskol gogorreko intxaurrari esaten zaio. "Bota-kontrarako intxaur motxaila kastak izaten ziran, eta onenak, Txarako sakonekuak".

## ESKUTITZAK

### BIDESARIEN INGURUKO TXOSTENA

MAIXA Eibarko Herritarren Parte-hartze Mahaitik, Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegiturarako Batzordea bidesariengandik inguruan egiten ari den txostenean kontutan har dadin gure ikuspegia azaldu nahi dugu. Gure kokapena dela eta (Debabarrean), hiriburuetarako nahiz kanporako bidaietan, gure mugikortasuna beti dago bidesariekin zigortua (AP-1, AP-8). Errepide haien ordezkoak oso arriskutsuak dira gure ustez (N-634, Gi-627), batetik duten ibilbide-egatik eta jasaten duten trafikoa haundiarekin, horrek zoruan sortzen dituen kalteak direla eta. Aurreko lefroetan azaldukoak Gipuzkoako beste gune batzuekin konparatzen badugu (Donostialdea, Tolosaldea, Goierri, eta abar.), konturatuko gara Debabarreneko biztanleak gure mobilitatea bidesari bidez sostengatzen ari garela urte luzez, N-1-eko trafikoa aldiz, aipatutako eskualdeei zerbitzu ematen diena, doan bi-daiatu izan du.

Ulertzen dugu, N-1-a doan izatea ez dela luzarorako izango, are gutxiago aipatutako autopistetan trafikoa libre uztea, zer esanik ez gaur egungo egoeran. Hau dela eta, uste dugu errepide horietako erabiltzaileek lagundu behar dutela azpiegitura horien mantentzea ordaintzen.

Ordainketa nola egin behar den erabakitzeke, gure errepideetan dabilen trafikoa mota kontutan izan

beharko genuke. Barne trafikoa dugu, gipuzkoarra, eta baita pasokoa ere, bai garraio astuna, bai ibilgailu partikularrena, eta denek lagundu beharko genuke errepideen mantentze-lanetan. Baina hori bai, berdintasunez egin beharko genuke, banaketa bidezko batekin. Ez da bidezkoa Itziarren lan egiten duen eibartar batek bidesaria ordaintzea eta Oiarzunen bizi den usurbildar batek autopista doan izatea, Donostiako bigarren ingurubidetik.

Debabarreko biztanleak aspaldian kexu agertu gara, kultur, kirol edo edozein motatako ekintzak eta baita administrazio tramiteek ere beti Donostiarako bidaia eragiten digutela, horrek dakarren gainkostu-egatik (aparkalekua konponduko ligukeen garraio fal-tagatik), ez baita bidesaria bakarrik, gehitu behar baitaio erregaia eta hiriburuan aparkatzea.

Beraz, eta amaitzeko, aukera bat edo bestearen alde egiterakoan (dela biñeta, bidesaria, bidesari so-ziala eta abar), eskatzen duguna da berdintasun eta bidezkotasunez hartzea, azkenean erabakitzen den aukera ez dadin berriz ere Debabarrenarentzat eta konkretuki eibartarrentzat konparaziozko bidegabe-keria suertatu. Eztabaidarako gure parte-hartzea eraikitzailea izan delakoan, zuen deliberaziotan trebetasuna opa dizuegu.

MAIXA (Eibarko Herritarren parte-hartze mahaia)

asteka

HEMEROTEKA

esaldiak

"Bigarren etxebizitza izateko eskubidea aldarrikatzen dugu, kenketa fiskal eta guzti. Baina zer izango litzateke leku jakin bat modan jarri eta denok bertan eraikiko bagenu bigarren habia? Zer egin beharko lukete bertakoe-  
k? Zer gertatuko litzaziguke guri, urrez gainezka dauden batzuk, xeke arabiar islamistak esaterako, gure herri-  
ra etorri eta lur gehiena erosiko balute, luxuzko spa-txaletak edo haien proiektu faraonikoak eraikitzeke? Lur one-  
n jabe izanda, eurek baldintzatuko lituzkete herri horren garapen erdua. Horren aldekoak izango ginateteke?"

(Jose Mari Pastor, kazetaria)


EIBARKO  
UDALAGIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

asteko

6.356

datua

ordu bestieri eskindu zetsazen Nagusilanequak iaz. 57 txangotan eta 31 medikurako bisittatan be lagundu eben. 23 boluntarixo dira, baiña gehixagoren premiñia dake.



## Udaberrirako modelo billa

EL CORTE INGLÉS-A 2012KO UDABERRI/UDA FASHION WEEK DALAKUAN MODELO MODURRA jardun nahi daben neska-billa dabil eta, horretarako, aproposenak aukeratzeko asmoz castinga antolatu dau: interesa dakenak martxoko eta apirilkeko barixakuetan 18.00etatik 20.00etara zabalik egongo dan Photocall-era (merkataritza zentruko 2. pisuan) "look onenarekin" agertu baiño ez dabe egin bihar. Egindako argazki guztien artian, moda aholkularixen taldiak modelorik onenak aukeratzeko ditte laster egingo dan desfilean parte hartzeko.

## Programaziño zabala Emakumiaren Eguna ospatzeko

**MARTXUAREN 8-XAN EMAKUMIAREN EGUNA DALA-ETA, EIBARKO ANDREN ALKARTIAK BATZEN DITTUAN** Andretxeak eta Eibar Zabalik-ek hainbat ekimen antolatu dittue, Udalarekin, Juan San Martin Liburutegixarekin eta Antzerki Jardunaldixen antolatzailliekin lankidetzan. Atzo bertan ekin zetsen egitarauari, Kzgunian emon eben enplegu taillarrarekin. Bereziki andrazkuak goguan liburutegixak antolatu daben enplegu taillarra hillaren 27xan be eskinduko dabe, 16.00etatik 18.00etara (izena emoteko liburutegira jo leike edo 943708437 telefono zenbakira deittu).

**Martxuaren 4, 5 eta 6xan**, barriz, andrazkuekin nolabaitteko loturia daken antezelanak eskinduko dittue 35. Antzerki Jardunaldixen barruan. Domekan eta astelehenian, 20.30xetan Coliseuan "Querida Matilde" taularatuko dabe eta martitzenian, 20.30xetan be baiña Hezkuntza Esparruko aretuan "Negra". Hurrengo egunian, 7xan, dokumentala eta mahai-ingurua egingo dittue Portalean, 19.00etatik aurrera: saiuan "Angeles de la guarda" diaporamia eta Oskar Tejedorrek zuzendutako "Compañeras de viaje" dokumentala emongo dittue.

**Martxuaren 8xan** bertan, barriz, 11.00etatik 13.00era eta 16.30xetatik 18.30etara, Eibarko Emakumien Mugimenduak antolatuta, Untzaga plazan informaziñorako karpa morauak ipiñiko dittue eta bertan Andretxea eta Eibarko Emaku-



mien Mugimendua, feminismua eta Martxuak 8xa eta emakumia Eibarren modoko gaixen gaiñeko informaziñua banatzeko dabe. Horrekin batera, 13.00ean Untzagan alkarretaratzia egingo da "Krisiak ez ditzala emakumeen lan eskubideak zapaldu" izenburuari jarraituta. Bestalde, Juan San Martin Liburutegixak informaziñorako puntua eukiko dau martxan hillaren 8xan hasi eta 31ra bittartian "Emakumeak: Nobel Sarixak" izenburupian. Eta martxuaren 9xan hasi eta apirilaren 1era bittartian, Susana Jodraren "Taldeko mugimendutik bakardadeko gelditasunera" erakusketia hartuko dau Portaleak. Egitaraua biribiltzeko, martxuaren 13an 19.00etatik 20.30xetara María Silvestre Cabrera Emakundeko zuzendariak hitzaldixa emongo dau areto nagusixan, "Mujeres, empleo y empresa: ¿por qué persiste la desigualdad de oportunidades?" izenburuari jarraituta.



Azken ediziñuan saritutakuen argazkixa. / EKHI BELAR

## 30 proiektu Toribio Etxebarria sarixetarako

**AURTEN 22. EDIZIÑUA BETEKO DABEN TORIBIO ETXEBARRIA SARI-XETARA 30 HAUTAGAI** aurkeztu dira, 21 "Enpresa Ideiak" atalian eta beste 9xak "Sormena eta berrikuntza teknologikua enpresan" atalian. Presentau dittuen proiektuen artian sektore diferentier lotutakuak dagoz, bestiak beste biozientziak, energia alternatibuak, ingurumena eta birziklapena, material

barrixa, robotika eta beste arlo batzuetakuak. Antolatzailliak "oso proposamen interesgarrixak" daguazela azpimarratu dabe. Aurkeztutako proiektu eta ideiak epaimahaiko kidiak ebaluau biharko dittue eta finalista izateko aukeratzan dittuenak apirillean egingo dan sari-banaketa ekitaldixa egin baiño egun batzuk lehenago emongo dittue ezagutzera.



## Matematika aplikauen zentrua inauguratu dabe

**AURREKO ASTIAN INAUGURAU EBEN BILBON ENRIQUE ZUAZUA EIBARTARRA ZUZENDARI ZIENTIFIKUA** dakan Basque Center for Applied Mathematics (BCAM) dala. Zuazuak oin dala 3 urte ipiñi eban martxan matematika zentrua, mailla internazionalian ikerketa-zentrua billakatzeko asmuarekin eta urte honen hasieraz geroztik egoitza barrizan dihardue biharrian 20 herrialde-tik gorako 50 goi-maillako matematikaririk. Eibartarraren berbetan, "egoitza barrixa duda barik punta-puntako ikerlarixak erakartzeko eta alkatzeko toki-za izango da eta, horrekin bate-



Isabel Celaá BCAM-eko liburuan siñatzen, Zuazua eta agintarixen aurrian.

*ra, matematikak gizartiaren beste esparruetara zabaldu eta I+Gko eremuari ekarpena egiteko tokixa be izango da".*

Inauguraziño ekitaldixa arrakastatsua izan zan eta, bestiak beste, Iñaki Azkuna Bilboko alkatea, José Luis Bilbao Bizkai-

ko ahalzun nagusixa, Isabel Celaá Hezkuntza sailburua, Carmen Vela estatu ikerketa, garapen eta barrikuntza idazkarixa, Iñaki Goirizelaia EHU-ko errektoria eta Juan José Ibarretxe lehendakari ohia egon ziran.

## Herri Bilgunia sortzeko billeria eguztenian

**EGUZTENIAN PORTALEAN EGINDAKO HERRIRA-REN PRESENTAZIÑUA "ARRAKASTATSUA"** izan zala emon dabe aditzera bertan parte hartu ebenak: "Larogetaka lagunuen artian preso eta iheslarixen egoeria aztertzen eta eurekiko alkartasuna Eibarren be aktibatze-ko premiñaz



Batzar irekixa deittu dabe hillaren 7rako. / EKHI BELAR


*berbetan jardun genduan eta lehelengo eginbiharrekuia Eibarko Herri Bilgunia sortzia dala pentsau dogu".* Horretarako eta lantaldiak osatzen juateko asmuarekin batzar irekixa deittu dabe eguztenerako, martxuaren 7rako, 19.000etan Kultur.



## ...eta kitto!-ren batzarra hillaren 22xan

**...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK MARTXUAREN 22XAN (EGUENA)** Ezohiko Batzar Nagusia egingo dau alkatia-aren egoitza (Urkizu, 11 solairu-arte- an). Bertan legiari jarraitze-ko alkatia-aren estatutu-ete- an egindako moldaketa presentauko da. Batzarra 19.00etan hasiko da lehelengo

deialdixan eta 19.30xetan bigarre- nian. Jarraixan Urteko Batzar Nagusia egingo da, honako gai-ze- rrendiari jarraituta: 2011ko gesti- ño-balanzia, 2012rako egitasmu eta aurrekontuak, galdera-erantzua eta iradokizunak, zuzendaritza barrixaren hautaketa eta funtzio- namendua, eta piskolabisa.



## autuan

### GIZARTE-LAGUNTASUNAK

Iraillaren 28ra arte egongo da gizarte larrialdixetarako laguntasunak eskatzeko aukeria. Interesa dakenak Pegorara, Herrittarren Zerbitzurako Bulegora jo biharko dabe, udaletxe-ko beheko pisuan.

### TASETAKO LAGUNTZAK

Ur, zabor eta estolderixa tasak pagatzeko diru-laguntasunen barrizatzia eskatzeko epia martxuaren 7ra arte egongo da zabalik. Eskuera barrixak egitteko aukeria, barriz, abenduaren 1era arte egongo da. Kaso bixetan Pegorara jo biharko da.

### SAGARDOTEGIRA AEK-REKIN

Martxuan 16xan AEK-kuak Hernaniko Larre-Gain sagardotegira urteeria egingo dabe eta urteroko moduan eurekin batera jua nahi daben eibartar guztieri inbitaziñua egin nahi detse. Autobusa Ego Gañetik urtengo da 20.00etan eta bueltia goizaldeko 01.00ian egingo dabe. Txartelak 40 eurotan erosi leikez euskaltegian.

Eskaladaren, mendiaren, naturaren eta, orokorrean, kirolaren zaleek zita daukate **martxoaren 6an, martitzena, Portalean, 19.00etan**. Irati Andak 'Hamarkada bat harkaitz artean' diaporama eskainiko du ...eta kitto! Euskara Elkartearen Illunabarrian programaren barruan, eta eskaladaren bitartez bizi izandakoa kontatuko du, besteak beste.

**IRATI ANDA**, eskalatzailea:

## "Bizitza ulertzeko modua da **ESKALADA** niretzat"

### - Noiz hasi zinen paretean gora egiten?


10-11 urte nituenean hasi nintzen eskalatzeko ikastolako mendi taldean. Eskolaz kanpoko ikasgai bezala eskaintzen zen mendia jardueraren eta, mendira joateaz gain, eskalatzera ere joaten ginen. Horrela, anaia Egoitz esker, bera lehenago hasi baitzen, zaleztan joan nintzen pixkanaka.

### - Zer da eskaladak ematen dizuna?

Hainbeste urteren ostean, dena ematen dit. Niretzat ez da izan praktikatzeko jarduerarik, bizitza ulertzeko modua baizik. Momentu bakoitzean modu batean bizi izan dut eskalada, eta gaur egun oraindik horren inguruan nabil bizitzen eta gozatzen.

### - Eskalada zein zentzutan hartzen duzu: lehiaketa moduan, plazer bezala, afizio hutsa...?

19 urtetan eskalada modu askotan hartzen denbora ematen du. Hasieran hobby moduan hartzen nuen, gero afizioa bizimodu bilakatu zen, eta baita ogibide ere. Gaur egun ez nabil lehiaketetan murgilduta, baina prestatzaile moduan nabil, lehiaketa bat edo



beste prestatzen... Momentu bakoitzean modu ezberdinean bizi izan dut eskalada, hura maitatuz eta baita batzutan gorrotatuz ere. Azken finean, nire bizitza eskaladaren inguruan ibili da hein handi batean.

### - Sufritua ere izango da grabitatearen legearen aurka jotzea.

Nahiko kirol gogorra da, atzamarrek, eskuek eta besoek asko sufritzen dutelako. Lesio asko egoten dira, azaleko minak, eta abar. Baina beste alde batetik, oso kirol polita da. Naturarekin izan dezakezun kontaktu hori oso berezia da, harkaitz batera igo eta atzera begiratzea. Apur bat bohemioa izan daiteke guzti hori, baina landa berdeak, zuhaitzak edo itsasoa ikusteak aurreko gogortasun hori samurtzen du. Era berean, kirolaren gogortasunak norbera gogortzen du. Zerbait lortzeko sufritzen duzunean, garaipena lortzen baduzu, gehiago disfrutatzen duzu.

### - Eskaladak emandako zein momenturenkin geratuko zinateke?


Zaila da aukeratzeko. Momentu bat aukeratzeagatik, eskalatu ondorengo solasaldiak aukeratzeko nitzuke. Pasio bat konpartitzen duzun pertsona batekin horrelako solasaldiak edukitzea aukeratzeko nuke, batzutan apur bat fanatikoak badira ere (barreak).

### - Non eskalaten duzu gusturago: rokodromoan edo harkaitzean?

Harkaitzean. Beste zerbait eskaintzen dizu arroak. Aspaldian ez naiz harkaitz artean ibili, baina joaten naizenean uste dut rokodromoan baino gehiago gozatzen dudala. Rokodromoan aritzea gustatzen zait, nola ez, baina harkaitzak duen puntua oso polita da.

### - Zein duzu toki kuttunena eskaladarako?

Toki bakoitzak bere xarma dauka, baina Apellanizeko ingurunea udazken partean, hostoak erortzen direnean, oso polita egoten da. Gainera, etxetik hurbil daukat, beraz, toki hori aukeratzeko nuke.




### - Katuak, sokak eta magnesioa albo batera lagata, 'El Conquistador del Fin del Mundo' saioan ere hartu zenuen parte. Nolako esperientzia izan zen?

Esperientzia ona izan zen, ezberdina eta berezia. Askok gustatzen zait lehiatzea eta frogetan oso gustora aritu nintzen. Jendearekin, eguneroko bizitzan bezala, batzuekin besteekin baino hobeto moldatu nintzen. Bestetik, telebistarako muntaia ikusten duzunean (irudiak hartu, aukeratu, moztu...) harritu egiten zaitu. Harrigarria da nola irudi bat testuingurutik ateratzeak eta musika jakin bat ipintzeak nolako aldaketa ematen dion zuk han bizi izandakoari eta jendeak jasoko duen mezuari. Alde horretatik, amorrua ematen du pixka bat, baina banekien zer aurkitu nezakeen bertan.

Euskal Herriko Itzulixa eta Donostiako Klasikua arriskuan dagoz. Eusko Jaurlaritzak %40xan murriztu dau lasterketetarako aurrekontua eta antolatzailliak ez dabe laguntzailliak aurkittu. 150.000 euro bihar dittue lasterketia egitteko. Kontu korrontia zabaldu dabe euro bat emongo daben 150.000 lagunen billa.

## Euskal Herriko Itzulixa egitteko dirua ipiñiko zenduke?



**GAIZKA LASAGABASTER**  
37 urte  
irakaslia

Argittara emon danan atzian zer daguan ez dakitt, baiña dirurik ez badago, oso ondo ikusten dot zaliok laguntzia. Ni prest nago eta laguntzeko asmua dakat. Begittantzen jata hobe dala oin laguntzia, karrera egittiari lagatzen bajako, gero gatxagua izango dala-ko barriro hastia.



**BEGOÑA ZANGITU**  
67 urte  
jubilatua

Euro bat ipintzia ez da ezer, baiña pentsatzen dot ez dala holako arazuak konpontzeko bidia. Izan be, anbulantzia bat falta bada, zer? Euro bat ipiñi biharko dogu herritar bakotzak? Arazia konpontzeko borrokatu bihar dala begittantzen jata eta bide barrixak topatu.


**FRAN FUENTES**  
37 urte  
langabia

Modu sinbolikuan egitten bada, ondo ikusten dot bakotzak euro bat ipintzia lasterketia egitteko. Holan, txirringularitza gustatzen ez jakunok ez dogu karrera ikusiko, baiña ez dogu gure poltsikotik ezer ipiñiko; eta gustatzen jakue-nak bai.



**PEPI IGLESIA**  
66 urte  
etxeoandria

Neurrira ondo daguala begittantzen jata. Euskal Herriko Itzulixa oso garrantzitsua da. Eibarko Bizikleta deitzen zan karrerian ondorixua da lasterketa hau eta ni horrekin hazi naiz. Begittantzen jata euro bat ipintzia ez dala gehixegi be.



**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilberritza 20 - beheko, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorio eta Erroaketa laber
- Egoibonen (Signo poligonoz)
- Partikular, natua eta aseguru etxei zorbizuz
- Koroak - Eskelak - Ursumenko eskelak
- Euskal Herri osuko ospitaleetan bertan zortuz
- Nazio eta Nazioarteko itzazkoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funerarioa laber

TELEFONUA (24 ORDU)  
**943 201 951**

**Mara Mara**  
**MENDI KIROLAK**

*Denboraldi likidazioa mendiko bota eta eskietan*

**%40 rainoko deskontuak neguko jantzietan**

ARRAGUETA, 10  
EIBAR  
943-702063

Urtarrillaz geroztik herriko hainbat kaletan kontenedore barrixa topau geinke lehenago eguazenen aldamenian. Kolore marroia dakan kontenedoria biohondakiñak jasotzeko preparauta dago, hau da, janarixetatik sortutako hondakiñak eta lorategi eta horrelakuetatik sortutakua jasotzeko pentsautako edukiontzixak dira. Birziklatze selektibuaren bidetik, Debabarrenako Mankomunidadeiak pauso bat aurrera emon dau eta Elgoibarren eta Eibarren abiatu dau biohondakiñak jasotzeko kanpaiña urtia hastiarekin batera.

## Herrittarrak KONTENEDORE MARROIRA erakarri nahixan

**K**anpaiñaren lehelengo fasian bakarrik kale batzuetan ipiñi dabe kontenedore marroia: Ardantza, Arragueta, Arragueta zeharra, Bidebarrieta, Bittor Sarasketa, Blas Etxeberria, Errebal, Estaziño, Fermín Calbetón, Ibarkurutze, Ifar Kale, Julian Etxeberria, Muzategi, Pagaegi, Plaza Barria, San Agustin, San Juan, Toribio Etxebarria, Urtzaille, Urkizu eta Zuloagatarren kalietan hain zuzen be. Horretarako Eibarren 18 kontenedore ipiñi

ditue eta Elgoibarren, barriz, 6. Hasieran, beraz, 5.000 fameliak euki dabe biohondakiñak batu eta reziklatzeko aukeria. Horretarako, urtarrillian aittatutako kalietako pegoretan ize-na-emoteko papela ipiñi eben eta interesa euki daben etxietan, datuak bertan idatzi ostian, birziklapena egitteko biharrezkua dan materixala laga dabe Mankomunidadeko teknikarixak musutruk: kubo txiki bat, kaleko kontenedoria zabaldu ahal izateko giltza be-



rezixa eta biodegradabliak diran 150 poltsa. Poltsa bereziak dira eta konpostaje-prozesuan, beraz, barruan bota diran hondakiñekin batera deskonposatu egitten dira. Gaiñera, poltsak transpiragarriak eta inpermeabliak dira eta horri esker usain txarrak saihestu egitten dira zaborra etxian pillatzen juaten dan bittartian. Mankomunidadeko teknikarixak etara dittuen kalkuluen arabera, banatutako poltsekin urtebeterako premiñiak asetu leikez eta, horrek gastatzian, atzera be udaletxian eskatzeko aukeria egongo da.

### Zaborraren %43

Mankomunidadeko teknikarixak diñuenez, "etxian sortzen diran biohondakin gehixenak elikagaixen eta lorazaintzako biharretatik eratorritako hondakiñak izaten dira eta edozeiñ etxetan sortzen diran hondakiñen porzentaje haundixa, %43 inguru osatzen dabe. Oiñ arteko moduan, horrek hondakiñ arrunten kontendorera botatzen badittugu, zabortegira eruan eta han alperrik galduko dira. Baiña edukiontzi marroi barrira sartzen badittugu, Konpostaje Instalaziñora eruan eta konpost billakatuko dittue hon-

## ZER BOTA LEIKE kontenedore marroian?

**Kontenedore marroian** etxian, ortuan eta lorategixan sortutako biohondakiñak sartu bihar dira, kozinauak eta kozinau barikuak. Landare-jatorriko hondakiñak: fruta, barazki, lekale, pasta eta arroz hondakiñak; fruta-hazurrak; lore eta landare hondakiñak; alpistia; baratzeo hondakiñak eta belarra. Animal-jatorriko hondakiñak: haragi, arrautza, arraiñ eta marisko hondakiñak; horren oskol eta azalak; haragi eta arraiñ hazurrak; gaztaia eta bere azala.

Honek be:

- Sukaldeko papela, papelezko ezpainzapixak, madalenen papelak, paperezko mukizapixak eta kartoizko arrautza-ontziak (zikiñak baldin badagoz). Bestela,



hondakiñ horrek garbixak baldin badagoz, kontenedore urdiñera bota bihar dira.  
- Kafe hondarrak eta iragazkixak; infusiño hondarrak eta poltsatuak.

- Ogi, gailleta eta opill hondakiñak.  
- Arrautza oskolak eta fruitu lehorren azalak.  
- Kortxo naturalezko tapoiak, txotxak...





Kontenedore marroiak herrixaren erdiko aldeko kalietan kokatu ditue lehelengo fase honetan.

dakiñak. Horren ondoren konpostea, substratu naturala dan neurrixan, lurra ontzeko, obra zibillian, lorazaintzan, nekazartizan eta beste jarduera batzuetan erabiltzeko moduan dago". Debabarrenian urtian sortzen diran 22.000 tona hondakiñetatik 9.500 tona biohondakiñak dira eta gaiñontzeko 12.700 tonak, barriz, bestelako zaborrak osatzen dabe.

Kalian ipiñi dittuen kontenedoriak, aurrekuekin konparauta, badake bestelako berezittasunik: zabaldu ahal izateko giltza berezixa bihar da, bestela ez dago zabaltzerik: "Holan, informaziño egokixa jaso daben eta birziklaplen prozesuan parte hartzeko interesa erakutsi daben famelixak baiño ez dabez sartuko biohondakiñak bertan eta, modu horretan, hondakiñekin egingo dan konpostaren puratasuna bermatu egitten da".

Kanpaiña martxan ipiñi eta segiduan emon dittu lehelengo datuak Mankomunidadiak. Arcadio Benítez presidentiak azaldutakuari jarraituta, "Elgoibarren eta Eibarren kanpaiña-

rekin bat egitteko aukeria euki daben 5.000 famelixetatik bakkarik 845k erabagi dabe izena emotia, 665 Eibarren eta 180 Elgoibarren. Eibarren 3.500 famelixari egin jakue inbitaziñua eta erantzuna ona izan dala esan geinke, %19 inguruk kanpaiñiarekin bat egin dabe-eta. Eta Elgoibarren animau dan jendiaren porzentajia piskat txixagua izan da".


#### Beste kontenedoriak

Gaikako beste bilketa selektibuak urtekin erregular ezarritta dakaguz herrixan, kale eta auzo guztietan. Papela eta kartoia kontenedore urdiñetan jasotzen dira eta, horrer esker, etxian sortutako kartoizko ontzixak, papela, egunkarixak eta bestelakuak berreskuratzeo aukeria dago. Horretatik etaratak lehengaixa, zelulosia, papel-enpresetan birziklatzen da, produktu baxixak egitteko.

Kontenedore berdietan, kristala jasotzen da, "etxian eta ostalaritzako establezimenduetan sortutako beirazko ontzixak berreskuratzeo asmuarekin. Be-

rreskuratzen dan beira edo kristala planta batera eruaten da, han sailkatzeo eta gerera ontzi baxixak egitteko".

Kolore horixa daken kontenedoretan, barriz, ontzixen bilketa selektibua egitten da, "etxeko ontzi ariñak, hau da, plastikozko, metalezko eta brik itxurako ontzixak. Edukiontzixetan jasotzen diran ontzixak sailkatzeo Legazpiko plantara eta Zornotzako BZB birziklatze plantara eruaten dira". Planta horretan berreskuratzen diran materia-



Birziklatzia eraginkorra izateko kontenedoriak modu egokixan erabili bihar dira.

lak sailkatu egitten dira. Gero, zati baxotxa birziklatzaile bati bidaltzen detse eta hark berreskuratutako materialea ekoizpen ziklora bueltauko dau.

Edukiontzia gorrixetan jasotzen diran pilak, barriz, Recypilas SA enpresara bidaltzen ditue. Han txikitu eta modu kontrolauan destilatzen dira. Holan, haien osagairik gehixenak berreskuratzen eta birziklatzen dira (zinka, kadmioa, altzairua, merkurixua, beruna, zillarra ...).


Barrixenetakuen artian dagoz, bestalde, olixua birziklatzeo kontenedoriak, laranja kolorekuak. Herritarren erosotasuna helburu, hasieran furgoneta bidez egitten zan bilketia gaur egunian kontenedorien bitartez egitten da: "Furgoneta bidezko bilketiak oso bezero fidelak zittuan, baiña herritar askorendako gatxa zan ordutegixarekin bat egittia, hortik kontenedoriak ipintzeo erabagixa".

Eta kontenedorien zerrendia birbiltzeko, ezin ahaztu zuri kolorekuak: horretan jasotzen diran arropak eta gaiñerako gauzak planta batera bidaltzen ditue eta han atzera be erabiltzeko moduan daguazanak bereiztu egitten ditue, Cáritas, parroquia, GKE eta bestelakue-ri emoteko eta gaiñerakuak birziklatu egitten ditue. Urtekin urtera sortzen dogun zabor kopuruak eta hortik eratorritako arzuak etenbarik gora egitten daben sasoiak lasterketa horretan abiada bajatzeko bidia emoten dau reziklajiak. Oiñ be- lozidadia kontrolatzia norberaren esku dago.


## FAUSTO MORGADO VICENTE

2012ko otsailaren 22an hil zen,  
64 urterekin

**Familiaren izenean, eskerrik beroena**  
gure nahigabea lagundu diguzuen guztioi  
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



TEEN-  
AUEA



Andoni Lopezek 17 urte ditu eta birritan izan da Euskadiko Triatloi txapelduna kadete mailan (baita akuatloian ere). Orain junior mailan dihardu lehiatzen, urte bi gehiago dituzten aurkarien kontra, baina maila duela erakusten du eibartarrak. Kawaiiko IronMan-a amaitzea da bere ametsa eta Javier Gomez Noya miresten du.

**ANDONI LOPEZ (triatloilaria):**  
**“Triatloia polita da ikusteko eta egiteko”**

**- Zertan hasi zinen: korrikan, bizikletan edo igerian?**

Igerian. Uretan 3 urterekin sartu nintzen, baina Urbatekin 9rekin hasi nintzen entrenatzen. Gero bizikleta hartu nuen, aita ere bizikletan ibiltzen zelako. Orduan pentsatu nuen, “eta zergatik ez dut korrika ere egiten?”. Horrela egin nuen eta triatloiak egiten hasi nintzen.

**- Zein arlotan zabilta gustorago?**

Igerian. Izan ere, txikitatik ibili izan naiz igeriketan.

**- Eta non zabilta okerren?**

Antxintxiketan. Gehien kostatzen zaidana da.

**- Nola eta zenbat entrenatzen duzu triatloietan jarduteko?**

Astean sei egunetan entrena-tzen dut. Orain arte igeriketa denboraldian murgilduta ibili naiz eta gehiago entrenatu dut arlo hori, baina hemendik aurrera korrika eta bizikletan ibiliko naiz gehiago. Triatloi denboraldian egunero entrenatzen dut, 2 edo 3 ordu egunean gutxienez.

**- Euskadiko Triatloi txapelduna izan zara kadete mailan.**

Birritan lortu dut irabaztea. Akuatloian ere irabazi dut.

**- Zer sentitzen da Euskadiko txapelduna izatean?**

Sentsazio ona da. Lehenengoan ez nekien irabazi nuenik ere: bat gerturatu eta “zorionak” esan zidan. Harrituta geratu nintzen. Hemendik aurrera zailagoa izango da irabaztea, kadetetik junior mailara pasatu naitzelako eta urte bi gehiagoko lehiakideak izango ditudalako aurrean.

**- Asteburuan Eibarko XXI. Duatloia egingo da.**

Ez ditut gustoko duatloiak. Nire ura da! laz parte hartu nuen, baina aurten ez. Bizikletarekin lasterketa markatzen egongo naiz, besterik ez. Gainera, domekan txirridularitzako Udaberri Saria egingo da hemen eta hor arituko naiz.

**- Triatloia edo akuatloia, zer duzu nahiago?**

Triatloia.  
**- Hiru kirol-froga batuta, ez da jasankorregia?**

Denek esaten dute kirol jasankorra dela triatloia, eta bada. Baina ondo entrenatzen baduzu eta gustatzen bazaizu, polita da: bai ikusteko, bai egiteko. Gustuko tokian aldaparik ez.

**Ketesu 2010** *bulego eta kolektibitateko instalazio osoak eta materiala*

altzariak, oakiak, uazparak, liburategiak...  
**bulego materiala enpresetan banatzen dugu**

Estazioak 12  
 20000 Eibar  
 tel. 943 22 1973 / 943 22 1974  
 fax. 943 22 7668  
 email. info@ketes2010.com

**Radio Eibar**  
 CADENA  
**SER**  
 104,0 FM

*Iradi*  
**LORADENDA**

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

# Kartel bat egin eta... Ameriketara!

Jarri ezazu burua martxan, kartel ona eginez gero Ameriketara joan-etorriko bidaia irabazi dezakezu-eta. Gainera, aukera bi izango dituzu: Auzolandegiak eta Euskadiko Gazteak Lankidetzan programak kartel bila dabilta, eta euskal gazteengan laga dute horren ardura.

**A**uzolandegiak eta Euskadiko Gazteak Lankidetzan programak 2012. urteko ekimenak gauzatzeari begira dihardute lanean. Ekimen horretan, besteak beste, programen kartelak diseinatzea eta horiek gazteei jakitera ematea sarten dira, eta proposamen berezia luzatu dute hori gauzatzeko: kartel lehiaketa.

Euskal Autonomi Elkartearen (EAE) bizi eta 18-30 urte bitartekoa izatea, eta lan originalak entregatzea (4 aurkeztu daitezke gehienez, programa bakoitzerako 2) dira lehiaketan parte-hartzeko baldintza bakarrak. Argazkiak, marrazkiak, collageak... sortzaileen eskuetan egongo da kartelaren disenua nola egin. Kartelaren irudia JPG formatuan bidali beharko

da, 72 p.p.p.-ko bereizmenarekin eta 70 x 50 zm-ko neurrian.

Kartelaren diseinuaz gain, bestetik, kartelerako leloa ere bidali beharko dute parte-hartzaileek. Hau, hala ere, ez da irudian txertatuko, izen-emate orrian baizik, euskaraz zein gazteleraz (gazteaukera.eus kadi.net webgunean aurki daiteke izen-emate orria).

## Joan-etorriko bidaia

Bai Auzolandegiak, bai Euskadiko Gazteak Lankidetzan programako irabazleek, Ameriketako hainbat herrialdeen arteko batera joan-etorriko bidaia-txartela lortuko dute. Lankidetzan programa bat egingo den Ameriketako herrien artean egingo dute aukera irabazleek, baina euren ez dute lankidetzan



Lehiaketako idazleek Ameriketara joan-etorriko bidaia irabaziko dute.

programan parte-hartzeko, bidaia euren kaxa egingo dutelarik. Herrialdeak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko, 2011n honakoak izan ziren lankidetzan

programak jaso zituztenak: Argentina, Bolivia, Kolonbia, Ekuador, El Salvador, Guatemala, Haiti, Honduras, Mexiko, Paraguay, Peru eta Venezuela.

Kartelen irudiak eta izen-emate orriak honako posta elektronikotara bidali behar dira: Auzolandegietako programen kasuan gazteria-uzolandegiak@ej-gv.es helbidera, eta Euskadiko Gazteak Lankidetzanekoak gazteria-lankidetzan@ej-gv.es helbidera. Edozein zalan-tza argitzeko, posta elektronikoa bidali daiteke gazteaukera@gmail.com helbidera.



## La Salle Azitaingokoak Kandantxun eta Jakan

La Salle Azitaingo 3. DBHko ikasleek bi egun zoragarri pasa dituzte, bai Kandantxun eta baita Jakan ere: Kandantxun pasaiatz eta eskiaz gozatzen eta Jakan bertako kaleak eta giroa ezagutzen. Eta helburua bikain eskuratuta, hau da, eskiatzeaz gain lagun arteko harremanak sendotuta, bueltatu dira ikasturtea jarraitu eta euren zereginetara.

**GAZTEMENUA**  
barixaku gauetan  
txotxa eta garagardoa barne

DENA **18 €**  
BARNE

**Entsalada mixtoa** edo  
**Bakailao tortila** edo  
**Bakailao konfitatua**  
.....  
**Txerri-saiheskia parrillan** edo  
**Ollasko erreka parrillan** edo  
**Okela gisatua**  
(Hirurak patata goarnizloarekin)  
.....  
**Gaztaia, intxaurrek**  
**eta membrilloa**  
Ogla, ura, ardoa, garagardoa eta sagardoa

Otaola etorbidea, 3 - atzea  
(Hiper Eroskiren alboan)

**Iruki**  
Sagardotegia

Tel. 943 20 68 44  
irukieibar@hotmail.com  
www.irukieibar.com



# OSASUN

## Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

**miren albistegi sojo**

HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14  
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57



**HORTZ KLINIKA**

**ARAT Hortz Klinika**

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Hortz, konpala eta koronak hantekin handiak zentrua...

943 20 18 51

**bista eder**

Irribarreak gazteu egiten gaitu

implante eta Hortz-Estetikako adituek

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxa: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**  
Hortz-Klinika  
Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90

RPS 04/02

**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

**hartz-klinika**

**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Tel.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.marladoloresolaizola.com

RPS 336/05

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOIA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896**

**UNTZAGA**  
hartz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Implanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
**ERREHABILITAZIOA**



- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Eguztari, 6 behekoa - Tel.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

## Fisioterapia

**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAGUETA, 20  
TEL: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**


**FISIOTERAPIA**

ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zkia. OSTEOPATIA NEUROLOGIA

NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

**Hemen zure tokia izan nahi baduzu: deitu 943-206776 telefono zenbakira**





# GGDA

## Fisioterapia

**fisio&más**  
Fisioterapia Avanzada y Rehabilitación Deportiva

- \* Esku Terapia
- \* E.P.I.® (Tendinitis tratamendua)
- \* Esku Drainatze Linfatikoa
- \* Mesoterapia

– Kirol Berregokitzea  
– Osasunerako ariketa agindua

**Tx4 Gimnasioa**    **Aupa Zen**  
Ifar Kale, 3            Jausoro, 1  
EIBAR                    ELGOIBAR  
667 95 36 28            943 74 34 40

## Podologoak



BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746

**PODOLOGIA**  
Erdiko Klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

## Psikologoak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi** eta **Beatriz Ortueta**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79


## Okulistak



Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solainartea  
943 20 19 82



**PODOLOGA**

Maidor  
Lopez  
Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

UME ETA HELDUENDAKO  
PSIKOLOGIA  
KABINETEA



**Arrate  
Garitaonandia**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO  
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66  
a\_garitaonandia@hotmail.com



Clinica Oftalmológica  
**RECALDE**  
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

**ELENA  
AIZPUN**  
PODOLOGA  
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
943 12 14 93

## Psikologoak



**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloak  
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina  
PSIKOLOGA  
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoan
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

## Radiologia

**MADINA  
RADIOLOGIA**

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (inplanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

**TRAUMATOLOGOAK:** Azkarate eta González Bosch doktoreak  
**TRATAMENDUAK** hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

## Eibar Eskubaloiairen harrobia igoera faseetan

**EUSKAL LIGAKO 2. FASEKO PARTIDUAN, FERNANDO FERNÁNDEZEK ZUZENTZEN DUEN** Tekniker Eibar Eskubaloiak 34-20 irabazi zion Loyola Indautxuri, nagusitasuna erakutsiz. Kadete eta jubenil mailetakoko taldeak, bestalde, Euskal Ligarako igoera faserako sailkatu dira Gipuzkoako liga erregularrean lehenengo postuetan sailkatu eta gero; orain Bizkaiko eta Arabako lehenengokoen aurka neurtu beharko dituzte indarrak, Euskal Ligara igotzeko ahaleaginean.


Somos Eibar Eskubaloiak, bere aldetik, denboraldiaren ohiko bi-deari jarraituz, 17-48 egurtu zuen Ordizia Vicuña Sport. Liga amaitzeko jardunaldi bi falta direnean, maila igo du Eibarko taldeak.




## Bedia eta Yarza gimnastak Euskal Ligan

**ASTEBURU HONETAN GIMNASIA ERRITMIKOKO IPUURUA KLUBEKO** Noelia Bediak eta Irati Yartzak Euskal Ligako 1. faseari ekingo diote, gimnasta federatuen banakako denboraldiari hasiera emango dion Euskal Ligako

lehiaketan: Noeliak pelotarekin egingo du lan eta Iratik uztaiarekin. Aurreko zapatuan, bestalde, Ipuruan jokaturako eskolarreko txapelketan, eibartarrek oso emaitza onak lortu zituzten eta Elene Varela eta Nahia Argüiz onenak izan ziren banakako lanetan.




## Eibar KE-k Guijuelo hartuko du etzi



**NEURKETA GARRANTZITSUA DU EIBAR KE-K ETZI ARRATSALDEAN IPURUAN**, batez ere igoerako kanporaketak jokaturako duen goiko aldeko laukotea zehaztu asmoz. Salamancako taldea 5. postuan dago sailkapenean, Eibarrengandik bost puntura eta aurtengo ezusteko nagusia bihurtu da honezkerok, maila bikainean baitihardu. Partidua arratsaldeko 18.00etan hasiko da.

## Kalamuako lau ordezkari Espainiako jiu-jitsu txapelketan




Brontzezko domina biak Manu Agirre prestatzailearekin.

**AURREKO ASTEBURUAN MADRILGO VILLAVICIOSA DE ODÓN-EN JOKATURAKO** Espainiako txapelketan, Kalamua Klubeko lau judoka izan ziren Euskadiko selekzioa ordezkatzeko, eurentatik hiru azken borroketaraino iritsiz. Josune Maillabarrenak eta Eneko Aburuzak brontzezko domina bana eskuratu zuten eta Gariquitoz Del Barrio 7. postuan sailkatu zen.

## Goi Mendi Eskolaren ikastaroak eta irteera martxorako

**HIRU ASTEBURURAKO EKIMENAK ANTOLATU DITU GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOAK** hilabete honetarako. Horrela, 10eko eta 11ko asteburuan elur mota guztietako eski tekniken ikastaroa eskainiko dute Luz Ardiden eta Barèges-La Mongien; 17 eta 18ko asteburuan, glaziare eremuko alpinismo ikastaroa emango dute Valle de Tena eta Teleran; eta, amaitzeko, 24 eta 25eko asteburuan, XXIII. eski zeharkaldia antolatu dute Candanchutik Lizarara eta buelta. Informazio gehiagorako, 943-461440 telefono zenbakira deitu dezakezue edo [www.gmf-fgm.org](http://www.gmf-fgm.org) web orrian begiratu.



## Euskal Herriko Itzulia arriskuan

**EUSKADI TXIRRINDULARTZA ANTOLATZAILEAK AURREKO BARIXAKUAN** jakinarazi zuenez, finantzaketa falta dela-eta, Euskal Herriko Itzulia (apirilaren 4tik 9ra arte da jokatuzkoa, etapa bat Arraten amaituta eta hurrengoa Eibartik irteenda) eta Donostiako Klasikoa arriskuan daude. Antolatzaileek diotenez, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren %60 soilik emateko prest agertu da. Antolatzaileen (zortzi lagunek osatzen dute taldea, erdiak Euskal Bizikleta hainbat urtetan antolatu zuten

eibartarrak) eta Jaurlaritzaren arteko eztabaidan, batak besteari aurpegiratzen diote beste babesle bat aurkitzeko konpromisoa hartu izana eta, lortu ez dutenez, "daukagunarekin ezinezkoa da 2012ko Itzulia eta Klasikoa antolatzea". Azken egunotan UCI-k (Unión Ciclista Internacional) antolatzaileei laguntzeko asmoa azaldu du eta azken horiek Kontuz 1 euro herri-ekimena kaleratu du proba antolatzen laguntzeko Kutxako honako kontu zenbakian: **21010072760012986386**.

## Eibarko Duatloiares XXI. edizioa bihar arratsaldean

**EIBAR TRIATLOI TALDEAK, GIPUZKOAKO ETA EUSKADIKO TRIATLOI FEDERAZIOEKIN** batera, Eibarko Duatloiares edizio berri bat antolatu du biharko. Euskal Herriko 4. proba puntuagarria izango da eta Gipuzkoako duatloi sprint txapelketa izango da jokoan bertan. Proba arratsaldeko 16.00-


etan hasiko da eta, antxintxiketan 5 kilometro egin eta gero, 25 kilometroko bizikleta saioari eta bi kilometro eta erdiko beste antxintxiketaldiari egin beharko diote aurre. Las-terketaren erdigunea Untzaga plazan kokatuko da, han izango baitira irteera, helmuga eta boxeak.



## Agarre-Azpi Etxebarrin bihar

**1.500 EURO JARRIKO DITUZTE JOKOAN BIHAR GAUEAN**, 22.00etatik aurrera Etxebarrin jokatu den idi-probako desafioan. Eibarko Agarre-Azpiko idi-pareak Ziortza-Bolibarreko Zubibarroari egingo dio aurre, 1.200 kiloko Etxebarriko buztarri bakarreko harria eta 250 gainkarga mugituz, zeinek plaza gehiago osatuz. Idi-pareei dagokienez, 1.100ean ez badira sartzen, kiloko kilo eta erdiko gainkarga eraman beharko dute.

Agarre-Azpi desafio berri bati egin beharko dio aurre.




## Urbatek nagusitasunez irabazi zuen Donostian

**URBAT-URKOTRONIK-EN TALDE NAGUSIA 4-14 GAIENDU ZITZAION** Waterpolo Donostiri, modu horretan hamar partiduetan zortzigarren garaipena eskuratu. 92ko "kintako" hirukotea (Mikel Basterrika, Yurgi Sologaitua eta Txomin Leturiaga) sasoi betean dago, baina ez

dira atzean geratzen Paben Ortíz de Zarate, Anartz Mitxelena eta Iñigo Unzeta beteranoak. Hauen lortatzean hezitzea nahi izanez gero, martitzen edo eguene-tan Orbeatik pasatu, 18.00etatik aurrera, eta izena eman dezakezue interesatu guztiek.

## Iñaki Bolinaga J.D. Arrateren presidentea izandakoa hil da

**1978-TIK IAZ ARTERAINO J.D. ARRATEREN PRESIDENTEA IZANDAKO IÑAKI BOLINAGA DOMEKAN HIL ZEN**, azken aldian gaitxo egon eta gero. 33 urtetako ibilbide horretan bereak eta bi egin zituen Eibarren eskubaloia sustatzearen alde eta berari esker izan dugu taldea elite mailako Asobal Ligan hainbat urtetan. Azken urteotako diru-arazotak, baina, J.D. Arrate desgertzea ekarri zuten iaz. Martitzenean San Andres parrokiaren egindako bere hileta-elizkizunean jende mardoa bildu zen azken agurra eskaintzeko eta egindako lanarengatik eskerrak emateko.



## Junior mailako Udaberri Saria domekan

**EIBARKO TXIRRINDULARITZA ELKARTEAK ANTOLATUTA, UDABERRI SARIAREN 34. EDIZIOA** jokatu da domeka goizean. Junior mailako lasterketa 10.30etan hasiko da Untzagatik eta handik bi ordura gutxi gorabehera amaituko Bidebarrieta 2. zenbakiaren parean kokatuko den helmugan. Txirrindulariek 78 kilometro bete beharko dituzte, azken kilometroak gure herrian kontrako norabidean betetzeko (Karmen, Urkizu eta Bidebarrieta).



## EUSEBIA AZKARGORTA ERRASTI

2012ko otsailaren 21ean hil zen, 91 urterekin

**“Eskerrik asko hain zoriontsu egin gaituzulako”**

**ETXEKOAK**

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Telebistan, zineman eta antzerkigintzan ibilbide luzea duen aktorea da Jose Ramon Soroz. Bihar geldialdia egingo du Coliseoan 'Kafka eta panpin bidaiaria' antzezlan eskaintzeko 17.00etatik aurrera. Idazleak Berlingo parke batean negarrez aurkitu zuen neskatoarekin izandako gertakizuna kontatzen da.

**JOSE RAMON SOROIZ, aktorea:**

## "Umeak esker onekoak dira eta ez dute engainatzen"

**- Nolako lana izan da Franz Kafka moduko pertsona baten azalean sartzea?**

Pertsonaia egitea proposatu zidatenean galdetu nien ea Kafkaren liburuak irakurri eta obra ikasi behar nituen. Kontua ez zen hori: Kafkari gertatu zitzaion zerbaitekin kontaktatzen da. Berlingo Steglitz parkean paseatzeko ohitura zuen Kafkak eta behin neskato bat negarrez ikusi zuen; zer gertatzen zitzaion galdetuta, neskatoak panpina galdu zitzaioela esan zion. Neskatoa gaizki pasatzen zegoenez, Kafkari bururatu zitzaion esatea panpina ez zela galdu, baizik eta bidaiatzera joan zela. Kontua da panpinak kartak bidaltzen zizkiola, nahiz eta errealtatean Kafka zen gutun horiek egiten zituen. Idazlea buru-belarri murgildu zen istorio horretan eta berarekin bizi zen Dora harrিতa geratu zen, hiru aste horietan Kafkak dena laga eta erabat transformatu zelako. Handik urtebetera hil zen Kafka, eta Dora eta beste hainbat lagun gutun horien bila ibili ziren, baina ez zituzten aurkitu. Antzezlaneko gutunak imaginazioz egin dira eta ez da Kafka nolakoa zen eta abar aztertzen, baizik eta hiru aste horietako bizipenak. Pertsonaia gozoa da, umeari idazten ziona gozoa zelako, eta egiteko polita da niretzat. Aitziber Garmendiaren pertsonaia ere, umea, potxolada bat da, eta Dorak (Ainara Ortega) bibolina jotzen du zuzenean. Dora izan zen istorioa jakitera eman zuena.

**- Antzezlan bitxia: valentzieraz, galizieraz, gaztelaniaz eta euskeraz eskaintzen da.**

Bai. Atzo Xixonen izan nintzen (elkarriketa martitzenean egin zen). Antzezlan galizieraz egiten dutenak aritu ziren,



gazteleraz egin bazuten ere. Eszenografia bera erabiltzen dugu guztiok: euren lana egin, desmontatu eta hurrengo saioa egingo den tokira eraman zuten. Aurreztu beharra dago.

**- Ezberdintasunak antzeman zenituen gailegoen eta zuen antzezlanen artean?**

Gazteleraz estrainekez jardun zuten eta urduri zeuden. Aktore bakoitzak bere estiloa dauka, baina euren gure lanaren antzerakoa da.

**- Umeentzako antzerkia da. Umeen edo helduen aurrean gustorago?**

Aktore gisa, ez dakit lanak umeentzako edo helduentzako diren arabera bereizten: berdinean egiten dut lan eta errespetu bera diegu umei zein helduei. Baliteke gai batzuk hobe izatea umeentzat bideratzea eta beste batzuk helduentzat, baina aktoreen lana berdina da. Hori bai, umeentzat lan egitea gustatzen zait: esker onekoak dira eta ez dute engainatzen.



## Umeentzako ipuin lehiaketa

**Eibarko El Corte Inglés-ak Haurrentzako I. Ipuin-Lehiaketa antolatatu du**, datorren apirilaren 23an ospatuko den Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira. 8 eta 12 urte bitarteko umeek har dezakete parte lehiaketan, euskeraz zein gazteleraz idatzitako ipuinak dendako beheko solairuan dagoen liburutegia sailera eramanda. Gaia norberaren aukerakoa izango da eta lanak eskuz eta letra argiarekin idatzita egon beharko dira, DIN A4ko neurriko paperean edo kartoi mehean, bertikalean, eta gehien jota 3 orrialdeko luzeera izango dute. Ipuinak martxoaren 3tik apirilaren 14ra arte jasoko dituzte.



Irudian azken Ipurterreko sari-banaketa ekitaldiko unea. / MAIDER ARANBERRI

## Ipurterre lehiaketarako epea zabalik

**Martxoaren 19ra arte izango da LHko eta DBKko XVIII. Ipurterre Ipuin Lehiaketara** lanak aurkezteko aukera. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketan iaz bezala LHko ikasleek ipuina idatzi beharko dute eta DBHko ikasleek, berriz, gutuna. Informazio gehiago nahi duenak ...eta kitto! Euskara Elkartera jo dezake (Urkizu, 11 solairuartera) edo 943200918 telefono zenbakira deitu.



## Kultuko bertso saioak martxan

**Arrate Kultur Elkarteak antolatutako Bertso Astearen barruan, datorren egunean 20.00etan taberna-saioa egingo da Amaia Agirre eta Julio Soto bertsolariarekin. Martxoaren 10-erako, berriz, bertso bazkaria antolatuko dute Maialen Lujanbio eta Jon Maiarekin. Bazkarirako txartelak Kultur daude salgai, 25 eurotan (23 eurotan bazkide direnentzat).**





## Iker Iglesiasen argazkiak Debegesan


**ASTELEHENAZ GEROZTIK IKER IGLESIAS ARGAZKILARI ARETXABALETARRAREN IRUDIAK IKUSGAI DAUDE** Debegesako harrera-aretoan, Azitaingo industrialdean. Hilabetez egongo da "China" izenburuko erakusketa ikusteko aukera. Hamaika argazki osatutako bilduma atal bitan banatuta dago: batetik, lurraldearen independentzia aldarrikatzen duten Xingjiang eskualdeko herritarren bizitza erakusten duten argazkiak ikus daitezke eta, bestetik, Txinako hainbat txoko galduetan hartutako irudiak jaso ditu egileak. Izan ere, erakusketaren helburua Txinako kontrasteak eta estetika erakustea baita. Debegesak egunotan hartuko duen erakusketa ondoren Gasteizera eta Madrilera eramango dute. Argazkilari gazteak sari garrantzitsuak eskuratu ditu 5 urteko ibilbidean eta, besteak beste, 2009an Namibiari buruzko erakusketa ibiltaria egin zuen. Erakusketa astelehenetik eguenera 08.00etatik 18.30etara ikus daiteke eta barixakuetan, berriz, 08.00etatik 15.00etara.



## Uni Encounter gaur abiatuko da

**GAUR 18.00-ETAN AURKEZTUKO DUTE UNI EIBAR-ERMUA DBH INSTITUTUAK ANTOLATUTAKO** Uni Encounter informatika jardunaldien 8. edizioa Portalean. Aurkezpen labur baten ostean, ordu erdiko hitzaldia emango du Consultec-eko Jon Urbietak, informazioaren teknologien inguruan merkatuan dauden premien joeren gainean. Jardunaldiak martitzenetik aurrera egunero jarraipena izango dute, hurrengo barixakura arte (ikus agenda, 20. orrian). Hilaren 9rako jende guztiarentzat zabalik egongo den saioa prestatu dute Ermuko ikastetxean, 16.00etan hasita: Guitar Hero, Counter Strike, ProEvolution Soccer, GoldenEye: Reloaded eta Call Of Duty: Modern Warfare 3 moduko jokoeekin. Parte-hartzaileen artean banatzeko sariak egongo direla aurreratu dute antolatzaileek.

# Antzerki jardunaldiak




**Martxoak 3  
17.00  
Coliseoan**

### "Kafka eta panpina" Txalo Produksioak

JOSE RAMON SOROIZ, AITZIBER GARMENDIA, AINARA ORTEGA

Berlin du abiapuntutzat istorio honek. Parkean pasioan zebilela, Kafka idazleak, bere panpina galdu egin zitzaioela-eta, negarrez zegoen neskatu bat aurkitu zuen. Umea lasaitzeko, istorio bitxia asmatu zuen idazleak eta horri ematen dio jarraipena lan honek.




**Martxoak 4 eta 5  
20.30  
Coliseoan**

### "Querida Matilde" Pentación Espectáculos

LOLA HERRERA, DANIEL FREIRE, ANA LABORDETA

Giro gozo, baina zitzatzaile eta eragingarrian, errealitatea moldatzen duen testua aurkezten dute. Umore askorekin, kultura eta belarrialdia desberdinetako pertsonen arteko elkarbizitzak sortzen dituen arazoak islatzen dira hiru antzele handik egindako komedian.



**Martxoak 6  
20.30  
Unibertsitatean**

### "Negra" Teatro Meridional

MARIA SZEREZEVSZKY

Hiru pertsonaia emakume antzele bakarrean. Emakumei buruzko lana, emigrazioa eta esklabutza era berri batzuei buruzkoa; guztiok buruzkoa ere bai. Ikuskizun dramatiko batzuetan, komikoa eta hunkigarria besteetan, gure kontzientzia harrapatzeko gauza dena.



### "El fin es mi principio"

Zuzendaria: JO BAIER

BRUNO GANZ, ELIO GERMANO, ERIKA PLUHAR

Elkarriketa sakona, interpretazio harrigarria eta paisaia zoragarriak. Guztiok helduko zaigun heriotzaren esperientzia lantzen du. Erraietaraino sartzen den istorioa, heriotzari baikor aurre eginez.

**Martxoak 8  
17.30/21.00 / Unibertsitatean**

## laburrak

### HIPERASIA: AZKEN EGUNAK

Portalean ikusgai dagoen "Hiperasia" izenburuko erakusketa domekan, martxoaren 4an itxiko dute. Erakusketa aretoan 21 artistaren orotariko artelanak batu dituzte eta horiek ikusteko azken aukera gaur, bihar eta etzi egongo da, 18.30etatik 20.30etara.

### EGUEN ZURI LEHIAKETA

Arrate Kultur Elkarateak antolatutako XV. Eguen Zuri argazki lehiaketan parte-hartzeko azken eguna martxoaren 20a izango da. Aratosteen inguruko argazkiak aurkeztu daitezke lehiaketara eta argazki onenaren egileari 160 euroko saria emango diote, 100 euro bigarren onenari eta 60 euro hirugarrenari. Informazio gehiagorako 943202299 telefono zenbakira deitu daiteke edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi.

### ALEX JIMENEZEN ARGAZKIAK

Gaur arratsaldean itxiko dute Untzagako jubilatutako etxean egunotan ikusgai dagoen "Itsasoaren istorioak" erakusketa, Alex Jimenez zarazutarraren argazkiek osatutakoa. 19.15etatik 21.15etara ikus daiteke erakusketa.

## Udaberrirako 10 ikastaro Markeskuan UEUren eskutik

MARTITZEN GOIZEAN AURKEZTU ZUTEN UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK UDABERRIRAKO PRESTATU DUEN IKASTARO ESKAIN-TZA, Ane Sarasua UEUko idazkari nagusiak, Mari Karmen Menika UEUko ikastatxe nagusiko arduradunak eta Esther Kareaga Euskara-Kultura batzordeburuak. Krisiari aurre eginez, UEUk inoiz baino ikastaro gehiago antolatu ditu, etengabeko prestakuntza herritar guztiei zabaltzeko asmoari jarraituta. Eibarren bertan, Markeskua jauregian emango dituzten 10 ikastaroetatik hiru ikastaro aurreratuak izango dira, beste hiru irakasle eta gurasoei zuzendutakoak, beste hiru lan esparru zehatzetan trebatzekoak eta azken ikastaroa, berriz, interes orokorrekoa. Ikastaroak martxoan, apirilean eta maiatzean emango dituzte,

"kasu askotan zapatuetan, ikastaroetan parte hartzen dutenentako askok beharrezkoak dihardutelako". Guztietan izena-emateko epea zabalik dago eta ikastaro bakoitza hasi baino astebebe lehenago itxiko dute. Matrikulazioa [www.ueu.org](http://www.ueu.org) web orriaren bidez egin daiteke eta ordainketarako kontu korrontea, berriz, Kutxako 2101 0035 19 0006884928 da. Eibartarren kasuan, Udalak matrikularen prezioaren erdia bueltatzen duela azpimarratzeko modukoa da eta gainontzeko udalei ere ikastaroetan parte hartzen dutenentzat diru-laguntzak eskatu dizkiete UEUko arduradunek. Ikastaroak hauek dira: "Moodle-ren erabilera aurreratu", "Teknologia berriak eta intimitatea. Nola babestu pribatutasuna zure datuetan eta komunikazioetan", "Dokumentu tekniko eta zientifikoen



edizioa LaTeX-en bidez", "Argazkigintza dokumentala. Proiektu pertsonala", "Bilerak dinamizatzeko teknikak", "Gai-xotasunen sustrai emozionala", "Irakaslea eszenan", "Kantuz eta jolastuz komunikazioa lantzen", "Komunikazio eraginkorraren artea (II. Modulua)" eta "Sormena lantzeko tailerra".



## Martxoaren 8a Topalekuan

**GAUR 19.00-ETAN ZABALDUKO DUTE TOPALEKUAN MARTXOAREN 8AREN INGURUKO ERAKUSKETA.** Hilaren 11ra arte ikusgai egongo den erakusketa plastikan diharduten hainbat artista profesional zein zaleturen artelanak batu dituzte. Zuloagatarrenen kalean dagoen erakusketa aretoa ohiko ordutegian zabalduko dute: astegunetan, 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.




## PAULINO LARRAÑAGA LONGARTE

I. URTEURRENA (2011-III-2)


*"Urak dakarrena urak daroa.  
Zuk emandakoa gurekin geratzen da"*

ZURE FAMILIA




# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ALAIN, gaur urte bi betetzen dozuz-eta. Ondo pasa, famelixaren partez.



Zorionak, EKI, atzo 3 urte egin zenduazten-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, AITOR, domekan urtebete egingo dozulako. Famelixaren partez.



Zorionak, LEIRE, gaur zortzi urte betetzen dozuz-eta. Etxekuen partez.



ÉIRE Uzkudun Cedrón, otsaillaren 25etik gure artian zagozelako, ongi etorri pitxirri!!!



Zorionak, ENARA, eta bost patxo haundi. Etxekuen eta, batez be, Enekoren partez.




Ongi etorri otsaillaren 17xan jaixotako ENEKO Crespo Gil-i, gurera etorritza poz haundixa ekarri dozu-eta. Zure famelixaren partez.




Zorionak, ANE, gure printzesa, martitzenian hamabi urte egin zenduazten-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, JESUSA Monje, 28xan urtiak bete zenduazten-eta. Gure amama jatorrari, seme-alaba, illoba eta billoben partez.




Zorionak, MIREN, atzo urtiak egin zenduazten-eta. Patxo haundi bat Izaro, amama eta famelixaren partez.



Zorionak, AMETZ, bixar urte bi egingo dozuz-eta. Jarraitu haiñ alaixa izaten. Patxo haundi bat famelixaren partetik.




Zorionak, ANE Arritokieta Martínez, martitzenian urte bi egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, AIORA, etxeko printzesa, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta OIHENART-en partez.




Zorionak, BEÑAT, zure laugarren urtebetetzian, sekulako eskalatzailia zagoz eginda-eta. Muxu haundi bat amama Amaia eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ENEKO Blanco, gaur sei urte egitten dozuzelako. Jarraitu hain zintzo. Aitta, ama, amama eta famelixaren partez.



Zorionak, PABLO, astelehenian hiru urte bete zenduazten-eta. Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, JOKIN Amorrosta Arriola, 28xan bederatzi urte bete zenduazten-eta. Patxote bat etxekuen eta, batez be, Unaxen partez.



Zorionak, AINARA, harañegun zortzi urte egin zenduazten-eta. Etxeko bisiesta txikixari, etxekuen partez.

## zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

**2an: 22.30**  
**3an: 19.45, 22.30**  
**4an: 20.00**  
**5ean: 20.30**

"El Havre"

Zuzendaria: Aki Kaurismäki



(2 ARETOAN)

**2an: 22.30**  
**3an: 19.45, 22.30**  
**4an: 20.00**  
**5ean: 20.30**

"Chronicle"

Zuzendaria: Josh Trank



(ANTZOKIAN)

**2an: 22.30**  
**3an: 19.45, 22.30**

"Ghost Rider"

Zuzendaria: Mark Neveldine



horoskopoa

**ARIES**

Pertsona horrekiko dependentzia gehiegi daukazula konturatuko zara eta, hori dela-eta, zure jarrera aldatuko duzu hurrengo egunotan.

**TAURUS**

Azken asteotan izan dituzun makalaldiak albo batera laga eta, berriz ere, osasuntsu sentituko duzu zure burua. Ea noiz arte den horrela.

**GEMINI**

Pentsatzen duzu dena dakizula, kontrolpean duzula guztia, baina ez da horrela. Akatsak onartzea aurrera egiteko pauso garrantzitsua da.

**CANCER**

Ez duzu beldurrik izango ezagutzen ez dituzun eremuetan sartzeko. Zure buruarekiko konfidantzak asko lagunduko dizu une honetan.

**LEO**

Ordenagailua piztu beharko duzu datozen egunotan, posta elektronikoko garrantzitsua jasoko duzulako. Inprimagailua eskura izan beharko!

**VIRGO**

Hilabete falta da, baina pentsatu al duzu Aste Santuan zer egin? Zure patrika nahiko hutsik dago, baina ez da diru asko behar ondo pasatzeko.

**LIBRA**

Kanpora baino, barrura begira ipiniko zara. Zure buruak eskertuko duen prozesua hasiko duzu, zure bizitzako azterketa sakona eginez.

**SCORPIUS**

Hainbat erronka izango dituzue datorren astean. Gainditzen zailak izango dira: gai zarela erakutsiko baduzu ere, asko nekatuko zara.

**SAGITTARIUS**

Zure ikuspegia aldatuko duen gertakizuna biziko duzu bihar. Lehen zenituen aurreiritziak hori eta gero ezerezean geratuko dira.

**CAPRICORNIUS**

Sasoi polita hasi da zuretzat. Udaberria aurreratu dela ematen du, dena kolore biziz ikusiko baituzue. Naturarekin gozatuko duzu batez ere.

**AQUARIUS**

Adi egiten duzun guztiarekin. Ondorioak berehalakoak izan barik ere, etorkizunean ederki gogoratuko duzu azken aldian egindako guztia.

**PISCIS**

Heldu da mendekua hartzeko ordua. Berak txantxa handia egin bazintuen, zu ez zara atzean geratuko. Hala ere, ez zaitez pasa; arriskutsuegia da.

**Barixakua 2**

**UNI ENCOUNTER**

**18.00.-** VIII. Uni Encounter-en aurkezpena.  
**18.15.-** "Tendencias del mercado en cuanto a necesidades en tecnologías de la información", Jon Urbietaren eskutik. Portalean.

**Zapatua 3**

**IKASTAROA**

**10.00.-** Sukaldaritza energetikoa, Azataporrua elkartearen eskutik. Portalean (sukaldean).

**DUATLOIA**

**16.00.-** XXI. Eibarko Duatloia, Eibar Triatloi Taldeak antolatuta. Irteera eta boxeak Untzagan.

**ANTZERKIA**

**17.00.-** "Kafka eta panpin bidaiaria", Tanttaka / Albenal/ Eme2 Prod. Coliseoan. Sarrera: 5 euro.

**ZINE EMANALDIA**

**18.00.-** "Toy Story 3". El Corte Inglés-eko aretoan.

**Domeka 4**

**IKASTAROA**

**10.00.-** Sukaldaritza energetikoa, Azataporrua elkartearen eskutik. Portalean (sukaldean).

**TXIRRINDULARITZA**

**10.30.-** XXXIV. Udaberrri Saria. Euskal Herria Junior. Untzagan.

**ANTZERKIA**

**20.30.-** "Querida Matilde", Pentación Espectáculos. Coliseoan. Sarrera: 15 euro.

**Astelehena 5**

**IKASTEN**

**16.00.-** Sendabelarren foroa: ipurua eta endalarra. Portalean.

**ANTZERKIA**

**20.30.-** "Querida Matilde", Pentación Espectáculos. Coliseoan. Sarrera: 15 euro.

**Martitzena 6**

**IKASTEN**

**10.00.-** "Hondakinen kudeaketa eta tratamendua", Elena Egurrolan eskutik. Esperientzia Eskolarekin elkarlanean antolatuta. Armeria Eskolan.

**UNI ENCOUNTER**

**17.00.-** "Plataformas móviles: uso de standards y frameworks de movilidad", Cecilio Alvarezen eskutik.  
**18.30.-** "Libro de pistas para no perderse con las APIs de audio en HTML5", Pablo Garaizar "Txipi"-ren eskutik. Uni Eibar-Ermuan (Ongarai auzoan, Ermuan).

**DIAPORAMA**

**19.00.-** Irati Andaren "Hamarkada bat harkaitz artean" diaporamaren emanaldia eta mahai-ingurua. Ilunabarrian programaren barruan. Portalean.

**IKASTAROA**

**19.00.-** Makrobiotika ikastaroa, Azataporrua elkartearen eskutik. Portalean (sukaldean).

**ANTZERKIA**

**20.30.-** "Negra", Teatro Meridional. Sarrera: 11 euro. Hezkuntza Esparruan.

**Eguaztena 7**

**IKASTEN**

**10.13.-** Mendi ibilaldia, Ermua-Mallabia-Ermua (San Antonio-San Jurki). Irteera Estaziñoako tren geltokitik (Ardantzatik 10.15etan).

**UNI ENCOUNTER**

**16.00.-** "Zerbitzari egoera kudeaketa telefono mugikorretik", Aitzol Naberan-en eskutik.  
**17.15.-** "Open Storage", Ivan Ricondo-ren eskutik.  
**18.30.-** "Data Science", Svet Ivanchev-en eskutik. Uni Eibar-Ermuan.

**EMAKUME EGUNA**

**19.00.-** Dokumentala eta mahai-ingurua. "Angeles de la guarda" diaporama eta Oskar Tejedorrek zuzendutako "Compañeras de viaje" dokumentalaren proiektzioa. Portalean.

**Eguena 8**

**IKASTEN**

**10.00.-** "Inteligentzia espiritual", Xabier Andonegiren eskutik. Armeria Eskolan.  
**19.30.-** Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**EMAKUME EGUNA**

**11.00.-** Eibarko Emakumeen Mugimenduak antolatuta, informaziorako karpa moreak. Untzagan.  
**13.00.-** "Krisiak ez ditzala emakumeen lan eskubideak zapaldu" izenburuari jarraituta, elkarretaratzea. Untzagan.

SUDOKUA

			4		5		1
9					2	8	
			8		7		
5			1				
	6	9	2	5	4	1	
				6			3
		5		2			
	3	6					8
7		4		3			

DENBORAPASAK

9	6	8	2	5	4	7	1	3
4	1	5	3	8	7	2	6	9
3	2	7	8	6	1	4	8	5
5	3	4	6	9	2	8	7	1
2	9	6	1	7	8	3	5	4
8	7	1	5	4	3	6	9	2
7	8	2	4	1	9	5	3	6
6	4	9	8	3	5	1	2	7
1	5	3	7	2	6	9	4	8

AURREKOAREN EMATZA





## erakusketak

- Martxoaren 4ra arte  
"HIPERASIA". Portalean.
- Martxoaren 31ra arte  
**JUAN IGNACIO AIZPURUA**ren "Lehen urratsak" argazki erakusketa. Portalea tabernan.
- JOSE LUIS MARTINEZ**en "Bardeak" argazki erakusketa. El Ambigú tabernan.
- "BALENTZIAGA OROITZARREA. Ixuako mendatea argazki erakusketa. Klub Deportiboan.
- "EMAKUMEAK: NOBEL SARIAK" informazio-topagunea. Juan San Martin liburutegian.

## ikastaroak

- **Sukaldaritza energetikoa eta makrobiotika.** Martxoaren 3 eta 4an, 10.00etatik 12.30etara eta martxoaren 6, 13, 20 eta 27an, 19.00etatik 21.30etara. Izen-ematea eta informazioa: Azataporrua elkartearen (Juan Gisasola kalean), eguaztenetan 17.00etatik 20.00etara.

## lehiaketak

- **LHko eta DBHko XVIII. Ipurterre Ipuin Lehiaketa.** Norentzat: LH (ipuin) eta DBH (gutuna) ikasleentzat. Informazioa eta lanak entregatzea: **Martxoaren 19ra arte**, ...eta kitto! Euskara Elkartearen.
- **Haurrentzako I. Ipuin Lehiaketa.** Norentzat: 8 eta 12 urte bitartekoentzat, euskeraz eta gazteleraz. Informazioa eta lanak entregatzea: **Apirilaren 14ra arte**, El Corte Inglés-ean.
- **Eguen Zuri Argazki Lehiaketa.** Lanak entregatzea eta informazioa: **Martxoaren 20ra arte**, Arrate Kultur Elkartearen.
- **Berba Lehiaketa.** Gaia: Eibar herria egokien definitzen duen berba. Lanak entregatzeko epea itxita dago, baina botoa emateko aukera martxoaren 2ra arte, www.eibarko-euskara.com webgunean.

## farmaziak

- 2, barixakua**  
EGUNEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)
- 3, zapatua**  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- 4, domeka**  
EGUNEZ Las Heras Larramendi (Calbetón, 19)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 5, astelehena**  
EGUNEZ Mendiñeta (Urkizu, 6)  
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- 6, martitzena**  
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)
- 7, eguaztena**  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 8, eguena**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)
- 9, barixakua**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)

## HILDAKOAK

- Luis Zendoia Mendizabal. 81 urte. 2012-II-17.
- Esteban Etxenagusia Alberdi. 86 urte. 2012-II-23.
- Tomas Etxeberria Goenaga. 83 urte. 2012-II-24.
- Placida Baraiazarra Bilbao. 92 urte. 2012-II-25.
- Cruz Zabala Lakoriketa. 80 urte. 2012-II-25.
- Jesus López Pérez. 73 urte. 2012-II-26.
- Iñaki Bolinaga Lizarralde. 62 urte. 2012-II-26.
- Roberto Bilbao Eizagirre. 55 urte. 2012-II-29.
- Cecilio Gutiérrez Estébanez. 84 urte. 2012-II-29.
- Jesus Bustindui Hernando. 80 urte. 2012-II-29.

## JAIOTAKOAK

- Iraia Richart Sanz. 2012-II-17.
- Eneko Crespo Gil. 2012-II-17.
- Jon Kortaberria Bedaio. 2012-II-20.
- Mayssae Benyaich. 2012-II-24.

## telefono jakingarriak

- SOS delak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak .....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Sorluzen, Zeleta kalean. 3 logela, sukalde-jangela eta komuna. Ganbara eta kalefakzioa. Eguzkitsua. Sartzeko moduan eta altzari berriein. Garajea aukeran, pegora ondoan. 135.000 euro. Tel. 696-658413 eta 626-666919.

– Pisua salgai Amañako plazoletan. 2 gela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. 125.000 euro. Tel. 685-728995.

– Eibarko Txikito kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Iggogailua. 150.000 euro. Tel. 672-622774.

### 1.2. Errentan

– Esteponan (Málaga) pisua alokagai, kaia eta hondartzaren ondoan. 3 logela, egongela, komun bi eta terraza (itsasora). Dena kanpora eta jantzita, elektrogailu eta ohe-arroparekin. Tel. 945-621015 eta 645-728317.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 618-734000.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Opel Astra 1.6 salgai. 75cv. 212.000 km. Olia eta gurpilak aldatu berri. Sony irratia mp3 irakurlearekin. 1.500 euro, negoziagiariak. Tel. 686-234684. Mikel.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Asua-Errekan (Urkizu) garajea salgai. Sarrera onarekin, eroso eta azkarra sartzeko. Tel. 670-793312.

### 3.2. Errentan

– Asua-Errekan garaje txikia alokagai. Prezio onean. Tel. 652-700919 eta 666-845249.

– Ileapaindegia alokagai, arazo personalarengatik. Oso merke. Tel. 667-806737.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da goizez edozein lanetarako. Tel. 671-150902.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 664-460181.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 697-815325.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 673-436363.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 636-858840.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 646-907049.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 695-144954 eta 943-257684.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Egunez. Tel. 695-303534 eta 943-531104.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Orduka. Tel. 649-148346.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-007292.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Orduka. Tel. 619-041821.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Geriatria formakuntzarekin. Orduka. Tel. 636-120425.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 687-114707.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako lan egiteko eta sukalde-laguntzailer jarduteko. Egunez. Tel. 632-700803.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, eraikuntzan peoi moduan edo komertzial gisa. Tel. 626-292587.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 626-292587.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 647-155908.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Interna. Tel. 648-873547.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 639-120349.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 671-139176.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da garbiketarako edo umeak edo nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 646-778839.

– Neska eskaintzen da garbiketarako edo umeak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 634-887814.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Orduka. Tel. 690-134485.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 626-052165.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 646-464300.

– Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 683-463499.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 675-421933.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka eta gauzez. Tel. 648-143804.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-515953.

– Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 638-515953.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 630-365137. Elena.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 943-567034 eta 659-037882.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan edo garbiketarako. Tel. 943-567034 eta 659-037882.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 662-012834.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-236564.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Baita asteburuetan ere. Tel. 698-632922.

– Neska eskaintzen da sukalde-laguntzailer moduan, etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Tel. 674-691381.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Autoarekin. Tel. 632-798768.

## 4.2. Langile bila

– Neska euskalduna behar da Eibarko taberna batean lan egiteko. Esperientziarekin. Tel. 943-121146.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Atzerriko Hizkuntzan diploma-tuak LH eta DBHko klase partikularrak ematen ditu. Tel. 651-503971.– Ingeniari kimikoak klase partikularrak ematen ditu: LH, DBH eta Batxilergoa. Tel. 628-665220.

– Marrazketa titulatuak pintura eta marrazketa eskolak ematen ditu. Tel. 666-449559.

– Batxilergoko neska batek klase partikularrak ematen ditu. Tel. 622-824468.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Eskiatzeko arropa salgai. 7-8 urteko neskatilarentzat eta 8-9 urteko gorako neska/mutilarentzat. Tel. 617-171510.


– Ohe artikulatu bi (0'80) salgai. Gutxi erabilitaokak eta egoera onean. Izararko oparitzen dira. Tel. 615-781238.

– Bikiendako kotxe-silla salgai, kapazo bat eta bi aulkixorekin. Ia erabili gabe. 400 euro. Tel. 629-326067.

– Babyjorn umeendako motxila salgai. Berria. 60 euro. Tel. 600-466573.

### 6.3. Galdu/Aurkitu


– Border Collie arrazako txakurra desagertu zen, orain dela ia bi hilabete, Azitain inguruan. 3 urte ditu, zuria eta beltza da eta eskumako belarria jausita dauka. Ikusten baduzue, deitu. 1.000 euroekin sarituko da Tel. 629-588627.



### 6.4. Bestelakoak



– Gorbeia arrazako ardi-txakurkumeak oparitzen ditut (ar eta eme bina). Tel. 943-203205.

– Bikiendako aulkia euritakoa oparitzen da. Tel. 669-208763.



DEBA

Markiegi, 6 (Tel. 943-608052)




LEKEITIO


Sta. Elena, z/g (Tel. 94-6842655)

## Aurten Lekeitioko edo Debako Aisia hoteletan ezkontzen bazara, honakoa jasoko duzu opari:


Autobusa doan zure gonbidatuentzat / 2 ordu DJ-arekin / Afari osteko mokaduak barra librean  
Deskontu handiak **argazki erreportaje**an (ezkontzarako doaneko gonbidapenak barne)  
Suite Junior motako **logela** eztei-gauerako (edo bono baliokidea) + “**Jarri Galant**” pack termala  
*Aipatutako eskaintza 100 gonbidatutik gorako ezkontzarako da. Gonbidatu gutxiagorekin, galdetu hotelean baldintza eta opariei buruz.*



[deba@aisiahoteles.com](mailto:deba@aisiahoteles.com)



[lekeitio@aisiahoteles.com](mailto:lekeitio@aisiahoteles.com)




...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
zerbitzua

**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelera,  
gaztelera,  
euskaratik  
eta ingelesetik  
euskara.**



- Urte askotako **ESPERIENTZIA** dugu.
- Bezeroaren beharretara **EGOKITU**ko gara.



[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)

# TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak




**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

# EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

## KOMUNITATEAK